

# EDITORIALA eu-

Editorial guztiek dute itxurakeria puntu bat. Areago, aldizkari baten lehen alea aurkezten denean. Ezin da ukatu berritasun horrek, lehen ez zegoen errealitate bat aurkezteak, plazerra sortzen diola, guri bezala, esfortzuz eta ilusioz lortutakoaren emaitza ospatzen duenari. Baina ez dugu oroimenean liluratuta geratu nahi, gure proiektuan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi dugu. Eta ba ote da gonbidapen hoberik lortutako lehen helburua aurkeztea baino?

Ale honetako benetako protagonistak aurkeztu aurretik, 452°F Elkartetik adierazi nahi genuke ez dugula soilik aldizkari bat sortu nahi izan, euskarri bat baizik literatura ikerle guztientzat, doktoreak izan edo prestatzen ari diren ikertzaileak izan. Zoritxarrez, literatura ikerketaren egungo egoeran baztertuta geratzen dira ikerle asko, batez ere hasiberriak badira. Horregatik, aldizkari bat sortu nahi izan dugu, aldi berean kalitatea bermatzeko baldintzak beteko dituen eta digitala izateak dakartzan aukerak baliatuko dituen: malgutasuna, horizontaltasuna, azkartasuna eta argitalpenaren luzera.

Ahalegin handia egin dugu hizkuntza aniztasuna bertute izan dadin, eragozpena izan beharrean. Neurri batean onartzen dugu hizkuntza pribilegiatu batzuk, lingua franca batzuk izatea, baina ez gaude ados horien erabilera politikoarekin. Internetek hainbat hizkuntzaren bizikidetzat errazten du, eta beraz, uste dugu sarean hizkuntza bat edo bi pribilegiatzea akatsa dela; alferkeria, baliabidegabezia edota borondate politikorik eza. Horregatik, edukiak ahal bezainbat hizkuntzatan eskaini ahal izateko ari gara lanean.

Orain bai, garrantzitsuenaz hitz egiteko unea da: gure proiektuan konfiantza jarri duten hamar literatura ikerle lanaz. Beste batzuk ere parte hartu nahi izan zuten eta bidean geratu dira; haiei gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu, eta euren proiektuetan lanean jarraitzeko animoak eman.

Monografikoa Edgar Allan Poeri buruzkoa da, eta lau artikuluz dago osatua. Lehena, "Poe y lo grotesco moderno", umorean eta fantastikoan aditua den David Roasen lana da. Groteskoa aztertzen du bostondarraren obran: komikotasunaren eta makabroaren bat egitea. "El discurso científico en la obra de Edgar Allan Poe" artikuluan, Joan Ferrusek Poerengan zientzia fikzioaren aita ikusi nahi duten kritikoak fagozitatzea du helburu, argudiatuaz Poeren zientzia ikuspegiak asko zor diola erromantizismoaren korronteari. "The Fall of the House of Usher: Poe's perverted perspective on the Maimed king" artikuluan, Forrest C. Helviek ugalkortasunari buruzko Erdi Aroko mito baten erabilera aztertzen du Poeren ipuin ezagunean. Azkenik, G. St. John Stott-en "Neither Genius nor fudge: Edgar Allan Poe and *Eureka*" lanean, poema polemikoa ikertzen da, iruzurra dela defendatzeko.

Miszelanean berriz, sei artikulua ditugu. Lehena "Poética y crítica literaria. Reflexiones en torno al concepto de narratividad en Paul Ricoeur" da. Federico Jose Xamist hermeneuta frantziarraren obratik abiatzen da, literatur obraren integrazioa proposatzeko bizi-esperientzian. "Metaficción e intertextualidad en *Prenom: Carmen* de Jean-Luc Godard" artikuluan, Carmen Pujantek metafikzioa eta intertestualitatea aztertzen ditu zinemagile frantziarraren obran, Godarden zinema ikuspegi proposatzeko. "La autoficción en *París no se acaba nunca* de Enrique Vila-Matas" lanean, Alba del Pozok Vila-Matasen nobelako jokoak aztertzen ditu, errealitatearen, mimesiaren eta fikzioaren artean. Marta Alvarezen "Montage et autres dispositifs narratifs et dramatiques dans *El astillero* de Juan Carlos Onetti" artikuluan, errealitatearen eta mundu fantasmaren arteko erlazioak aztertzen dira, narrazioen gurutzatzea eta ahots narrazioaren anbigutasuna nobelan. "El cuento es la selva" berriz, erredakziora heldu zaigun proposamenik ezberdinenetakoa da. Diego Fabian Arevalok Horacio Quirogaren *Los cuentos de la selva* liburuko animalien hizkerak sortzen duen ekosistema aztertzen du. Lehen alea ixteko, "Autobiographie et fiction: le cas d'*Enfance* de Nathalie Sarraute" artikulua dugu. Hamza Boulaghzalatek obra horretako baliabide autofikzionalak ikertzen ditu.

Gure aldetik, 452ºF aldizkaria irakurtzen gozatzea espero dugu, eta aurrerantzean ekimen honetan parte hartzea. Sarea etorkizuna da zentzu askotan, ziur aski baita ikerketa akademikoarentzat ere, eta hamarkada bat baino gehiago da etorkizun hori iragazten dela. 452ºF aldizkarian, behin betiko, etorkizun hori oraina izatea nahi dugu.